

ANIMA: FUNTSEZKO SOZIJETATEAK



- Zein dira behar ditugun bazkide eta hornitzaile nagusiak gure proiektuak funtziona dezan?

Talde ekologistak eta gizartean ingurumenarekiko kontzientziazioa bultzatzen duten erakundeak izango dira gure bazkideak. Hauek, informazioa bilatzen eta produktuak ingurumenarekiko egokiak diren edo ez jakitea ahalbidetzen lagunduko digute.

Hornitzaileak produktua sortu duten enpresak edo markak izango dira. Hauei galdetu beharko diegu ea beraien produktuak non ekoitziak diren, zer materialez eginak dauden, ingurumenarekiko zer inpaktu duten eta abar. Hauetaz gain, bestelako informazio iturri eta ikerketen emaitzez baliatuko gara, eskaintzen dugun informazioa ahalik eta fidagarriena izateko.

- Zergatik dira garrantzitsuak guretzako?

Funtsezkoak izango dira guretzat, izan ere, eskainiko diguten informazio hori nahitaezkoa izango da gure proiektua burutu ahal izateko. Hauek gabe gure lana izugarri zailduko zen, eta ia ezinezkoa izango litzake aplikazioa merkaturatzea.

Bazkideek informazioa eskuratzen eta hasierako inbertsioetan lagunduko gaituzte, izan ere, bazkide horiek gure proiektua osatzen dugun partaideok baino ahalmen ekonomiko handiagoa izango dute.

Hornitzaileek aplikazioan eskainiko dugun informazio hori emango digute. Aipatu bezala, informazio hori gabe gure proiektuak ezingo luke aurrera egin, beraz ezinbestekoa da hornitzaileen funtzioa.